IKT GAITASUNAK KURRIKULUAN

SARRERA

Urteak daramatzagu teknologia berriak gure inguruan ditugula, baina ikastetxearen jardunak koordinatu gabe jarraitzen du.

-Hasiera batean, ordenagailuen funtzionamenduaren ezagutzan jarri genuen gure ahalegin guztia.

-Bigarrenik, Offimatika programak eta beste hainbeste aplikazio ikasten aritu gara.

-Zenbaitzuk dagoeneko heldu diote interaktibitateari, on-line aplikazioei…

Baina IKT gaitasunak ikastetxeko kurrikuluan nola dauden txertatuta aztertu gabe dago.

Datorren ikasturtean, 2011-2012 ikasturtean, DBH lehen mailako ikasle guztiek WIFI bidez konektatutako ordenagailu portatil bana izango dute. Ikasgela bakoitzean Arbel Digitala izango dugu.

Prestatuta al daukagu gure programazioa erronka honi ongi erantzuteko?

IKT GAITASUNAK - DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

LOE legearen arabera honako hauek dira IKTen funtzioak Bigarren Hezkuntzan:

"Informazio-iturriak erabiltzeko trebetasunak garatzea, zentzu kritikoz ezagutza gehiago lortu ahal izateko. Oinarrizko prestakuntza lortzea teknologien arloan, bereziki informazioaren eta komunikazioaren arloan".

Internet, on-line bankuak, posta elektronikoa, sakeleko telefonoak, prentsa digitala, sareko erosketak eta on-line hezkuntza, eta abar ikaragarri garatu dira azken urteotan. Gainera, oinarrizko tresna bilakatzen ari dira edozeinen bizitza pertsonalean zein profesionalean. Ondorioz, eskolakoekiko paraleloak diren ikaskuntzak gertatzen dira. Arautu gabeko ikastaldi informalak dira, baina ikastetxeko curriculumean errekonozitu eta integratu behar direnak. Horrela, ikasleak hainbeste aldatzen den gizarte honetara egokitzea da helburu nagusia, eta, era berean, informazio honen guztiaren aurrean jarrera kritikoa eta arduratsua izatea.

Hori dela eta, IKTak eskolako curriculumean sartzea beharrezkoa da. Hezkuntza-administrazioek edota irakasleek ezin dituzte teknologia horiek albo batera utzi, are gehiago, ikasleek, etapa amaitutakoan, egungo gizartean mugitzeko oinarrizko gaitasunak menderatzeko eskubidea daukatela jakinda.

Argi geratu behar du teknologia horiek ez dutela berez ezagutza-helburu jakin bat osatzen; aitzitik, pertsonaren prestakuntzan funtsezkoak diren hainbat gaitasun garatzeko tresna erabilgarriak dira, batez ere pertsonek ikasten ikas dezaten.

Ezin da ahaztu eskolak, teknologia berrien erabilerari dagokionean, daukan funtzio osagarria; izan ere, ikasle guztiek ez daukate etxeetan behar beste azpiegitura. Litekeena da eskola izatea ezagutzaren gizartetik baztertuak ez izateko gaitasun zein trebetasun teknologikoak eskuratzeko leku bakarra.

Hezkuntza-sistemak beharrezko neurriak hartu behar ditu, zulo digitala saihesteko ez ikasleen artean soilik, baita irakasleen artean ere.

IKT GAITASUNAK – LOE

“informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasten eta erabiltzen hastea, ikasleek jasotzen eta sortzen dituzten mezuen aurrean espiritu kritikoa garatuz”.

“Etapako zenbait arlotan berariaz erabiliko liratekeela ahaztu gabe, (...) informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (...) arlo guztietan landuko dira”.

Arlo gisa kontsideratuak ez daudenez, ordea, ez du ematen arrazoizkoa denik lan-edukiak zehaztea; izan ere, IKTak ikaskuntza gisa eraiki beharko lirateke. Horrek euren baldintza ahulduko luke eta antolakuntza mailako arazo ugari sortuko lituzke. Hori dela eta, ikasleek etaparen amaieran izan beharreko gaitasunak eta etapan zehar plangintzak gidatuko dituzten ebaluazio irizpideak baino ez dira identifikatzen.

IKT hitza kontuan izanda, gaitasunen sailkapen sinple bat egin dute:

1.	*Teknologia*: ikasteko beharrezkoak diren aparatuen eta aplikazioen erabilerari zuzenean lotutako gaitasun guztiak biltzen ditu.
2.	*Informazioa*: informazioaren tratamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu; izan ere, ikasteko IKTen erabilerarik oinarrizkoena da.
3.	*Komunikazioa*: IKTen komunikatzeko aukeren hezkuntza-aprobetxamenduari lotutako gaitasunak biltzen ditu.

Horrez gain, curriculumean teknologia-arloaren presentzia ere kontuan hartzekoa da; izan ere, arlo horrek oso garrantzi handia du IKTekin lotutako gaitasunak lortzeko orduan. Behar-beharrezkoa da ikastetxe bakoitzean koordinazio egokia lortzea, ikasleek gaitasun guztiak lor ditzaten.

IKT GAITASUNAK – HIRU DIMENTSIO

TEKNOLOGIA

1. Gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea
2. Segurtasuna erakutsita, helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzea
3. Ikasgelako jardueretan programak eta aplikazioak erabiltzea
4. Teklatuaren bidez informazioa sartzea arintasuna eta zehaztasuna hobetzeko
5. Ergonomiako eta segurtasuna. Osasuna.
6. Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzeko prestatzea
7. Teleprestakuntzako ingurunetan mugitzea
8. Teknologien eta horien aurrerapenen berezitasunak hautematea eta aztertzea
9. Interneten batera egin beharreko lanaren aplikazioak erabiltzen jakitea

INFORMAZIOA

10. Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea.
11. Informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...)
12. Formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamendu batzuei komunikatzeko.

KOMUNIKAZIOA

13. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea.
14. Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) erabilera kritikoa eta segurua garatzea.
15. Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia baloratzeko.

EGIN BEHARREKO LANA: **IKT gaitasunak gure programazioan sartuta dauzkagun hausnartu**

1.-Koadroetan, gaitasun horri dagozkion ebaluazio irizpideak azaltzen dira.

Azpian dituzten **BAI** ☐ **EZ** ☐ **koadrotxak beteko ditugu.**

2.-Gaitasun hauek lortzeko, ebaluazio irizpide horien ildotik, **gure mintegian zer egiten dugun edo zer egiteko asmoa dugun adierazi.** Gure mintegian ezer egiteko asmorik ez badugu eta beste arloren baten lana dela iruditzen bazaigu, hori ere goiko atalean jarriko dugu.

3.- Mintegian hausnarketa amaitzen denean, **Onintzari itzuli behar zaizkio koadernotxoak**, ikastetxeko ondorio orokor batzuk ateratzeko.

4.-Aurrerago, **beste bilera batean, ikastetxeko ondorio orokorrak aurkeztuko dira** eta mintegi bakoitzari bere koadernotxoa eta ondorio orokorrak itzuliko zaizkio datorren ikasturtetik aurrera programazioetan IKT gaitasunak islatuta egon daitezen. Honetarako IKT Ikastetxe Eredua Proiektutik ereduak ematen saiatuko gara.

5.- 2011-2012 ikasturteko programazioetan IKTak ongi islatuta agertuko dira, geletako jardueretan erabiltzen direlarik.

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
1.-Teknologia bakarrik erabiltzeko gai izateko, eskolako jarduerak exekutatzerakoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Ohiko terminologia ulertzen eta erabiltzen du, bereziki abiadura, memoria eta gaitasuna bezalako magnituteekin lotutakoa. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Elementu fisikoak, periferikoak, eta horien funtzioak identifikatzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Erraz moldatzen da zentroko sare-eremuan, ohiko errutinak erabiliz: esaterako, artxiboak ordenan eta segurtasunez gordetzea eta ezabatzea, lanen segurtasun kopiak sistematikoki egitea, tekla-konbinazio ohikoenak erabiltzea ohiko eragiketak egiteko. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
2.- Eskolako jarduerak exekutatzerakoan ordenagailuaren oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, iraunkortasunean interesatuta eta erabakiak hartzerakoan segurtasuna erakutsita. Helburua teknologia modu arduratsuan eta egokian erabiltzera ohitzea da.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Gailuak egoera onean mantentzen laguntzen duenean **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Energia, papera, kontsumitzen direnak... aurreztatzeko konpromisoa hartzen duenean **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Segurtasun arrisku ohikoenez jabetua dagoenean eta jokaera kontsekuenteak onartzeko beharra sortutakoan: birusen kontrako babesleak, arrotzen hautemaleak, suebakiak... **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Autonomiaz jarduten du ohikoak ez diren mezuen aurrean eta eguneroko arazo teknikoen aurrean (blokeoak, askatutako kableak, periferikoak). **BAI** ☐ **EZ** ☐ 5. Programak instalatzeko eta desinstalatzeko gai da, beharrezko neurriak hartuta. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:** _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
3.- Erreminta informatikoen aukera propioak menderatzeko, ikasgelako jardueretan programak eta aplikazioak erabiltzea.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Behar bezala erabiltzen ditu sistema eragileen erabilgarritasunak. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Erabilgarritasun-programa desberdinak behar bezala erabiltzen ditu: artxiboen ulermena, dokumentuak bistaratzeko programak (grafikoak, testuak), audio- eta bideo-irakurgailuak. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Programa bakoitzak eskaintzen duen laguntza erabiltzen du, baita beste tutorial eta eskuliburu batzuk ere aurreratutako aukerak aztertzeko eta hainbat arazo bere kabuz konpontzeko. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
4.- Teklatuaren bidez, eskolako jardueren testuinguruan, informazioa sartzea arintasuna eta zehaztasuna hobetzeko.			
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		**ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?**	
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Zehaztasunez tekleatzen du eta minutuko 120 pultsazioko abiadurara iristen da, gutxienez. **BAI** ☐ **EZ** ☐		**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:**	
		MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:	

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
5.- Ergonomiako eta segurtasuneko oinarrizko elementuak identifikatzea eta baloratzea, ordenagailua erabiltzerakoan ohitura osasuntsuak hartzeko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Pantailekiko, esposizio denborekiko... posturak, distantziak eta posizioak zaintzen dituenean **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
6.- Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzeko prestatzea, berariazko ikaskuntzak lortzeko eta ikasketa autonomoari duen balioa emateko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Web inguruneak eta multimedia euskarridun material interaktiboak erabiltzen ditu, arlo bakoitzeko gai desberdinak lantzeko. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Interneteko prestakuntza- eta informazio-iturri ugari ezagutzen eta erabiltzen ditu: liburutegiak, ikastaroak, prestakuntza-materialak, prentsa... **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Materialekin eta inguruekin egoki lan egiten duenean **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Ikasgelan ezarritako plan zehatzen arabera autoerregulatzen denean **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
7.- Teleprestakuntzako inguruneetan mugitzea, ikastaroetan eta beste ekintza batzuetan parte hartzera ohitzeko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Eskura dituen tresnak behar bezala erabiltzen dituenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Ezagutzaren talde-eraikuntzaren garrantzia aintzakotzat hartzen duenean eta prozesu horretan parte hartzen duenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Beste pertsona batzuen ekarpenak errespetatzen dituenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
8.- Teknologien eta horien aurrerapenen berezitasunak hautematea eta aztertzea, horien erabilerarekiko jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa agertuz, norberak duen ikasteko gaitasunean erabili ahal izateko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Kritikoki eta aktiboki onartzen ditu teknologia berriak, eta bere eguneroko lanak egiteko erabiltzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Teknologiaren atzean dauden interesez eta baloreez ohartzen da eta, horrenbestez, teknologia horiek kontuz eta neurriz erabili behar direla ulertzen du. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Jabedun softwarearen eta banaketa askerako softwarearen arteko desberdintasunak ezagutzen ditu eta, horrenbestez badaki noiz erabili behar duen bata eta noiz bestea, erabilgarritasuna, prezioa eta gizarte-kontzientzia kontuan harturik. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Teknologiek duten adikzio-botereaz ohartzen da eta kontrolatu egiten du tresna horiekin igarotzen duen denbora. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
TEKNOLOGIA GAITASUNA			
9.- Interneten batera egin beharreko lanaren aplikazioak erabiltzen jakitea, gizabanakoen eta taldeen presentzia birtual hazkorra kontuan izanda, sarearen presentzia bera modu egokian kudeatzeko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Zenbait aplikazio ezagutzen, baloratzen eta erabiltzen ditu (agendak, blogak, web ingurunean, wikiak, bulegotikako tresnak, irudien kudeaketarako tresnak eta Interneteko audioa eta bideoa). **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Partekatzeak aberastasun pertsonalerako eta talde-aberastasunerako duen garrantzia onartzen du. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Posta-kontuak behar bezala antolatzen eta kudeatzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

MINTEGIA		IKASGAIA	
INFORMAZIOA GAITASUNA			
10.- Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak jarrera kritikoarekin esploratzea eta analizatzea, IKTen hizkuntza propioak interpretatzeko eta ulertzeko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Inguru hipertestualetan mugitzen denean, estekak, irudiak... egoki erabilita **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Irudiak informazioaren transmisioan duen garrantzia baloratzen du (irudien irakurketa). **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Genero bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen ditu (publizitatea, albistegiak, dokumentalak...); horietako bakoitzaren aukerak bereizten ditu interesen edo beharren arabera, eta hitzezko nahiz hitzezkoak ez diren elementuak interpretatzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Jarrera kritikoa agertzen du ikus-entzunezko bitartekoetan agertzen diren mezuekiko, iturrien eta horien motibazioan garrantzia kontuan hartuz. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** _____ **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:** _____

MINTEGIA		IKASGAIA	

INFORMAZIOA GAITASUNA

11.-Hainbat helbururekin informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...), prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Informazioa tratatzeko jardueretan planifikatzen, lan egiten, berrikusten eta parte hartzen duenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Interneteko nabigatzaileek emandako aukerak menderatzen ditu, informazioa jasotzeko, biltzeko, berreskuratzeko edo sailkatzeko, baita gogokoak/markagailuak kudeatzeko ere. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Bilagailuen aukera aurreratuak erabiltzen ditu informazio murriztua edo informazio zehatza lortzeko. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Datu-basean informazioa begiratzen eta sartzen du. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

5. Sarean informazioa antolatzen eta partekatzen duenean informazioaren jabetza intelektuala errespetatzen du, bai jabedun informazioaren kasuan, bai jabego publikoko lizentzia duen informazioaren kasuan (esaterako, GNU eta copyleft). **BAI** ☐ **EZ** ☐ 6. Jarrera kritikoa agertzen du informazioaren aurrean, baten eta bestearen kalitatea bereiziz. **BAI** ☐ **EZ** ☐	

MINTEGIA		IKASGAIA	

INFORMAZIOA GAITASUNA

12.-Prozesu hauetan autonomia eta eraginkortasuna lortzeko, formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, informazio hori berdinei, familiei edota beste estamendu batzuei komunikatzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Lortu nahi den helburuarentzat egokienak diren programa informatikoak erabiltzen dituenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Testuaren, irudien, audioen eta bideoaren arteko oreka mantentzen du lanak aurkezterakoan. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Testuak osatu, editatu eta berrikusten ditu prozesadore baten bidez. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Testuak, irudiak, audioak eta bideoak sortzen eta aldatzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 5. Datu-baseen kudeatzaile baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 6. Kalkulu-orri baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 7. Grafikoak, testuak eta ikus-entzunezko baliabideak nahasten dituen dokumentuak sortzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**

8. Estetikak komunikazioan duen garrantzia kontuan hartzen du. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 9. Pertsonen eta erakundeen ohorea errespetatzen du, eremu pribatuetan sartu gabe eta benetako informazioa eskainiz. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 10. Arduraz erabiltzen ditu IKTak pertsonen arteko komunikazioa errazteko bitarteko gisa **BAI** ☐ **EZ** ☐ 11. Komunikazio eraginkorra izan ote den edota aldaketak sartu behar ote diren baloratzen duenean.	

MINTEGIA	IKASGAIA
KOMUNIKAZIOA GAITASUNA	
13.- Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, bitarteko horiek behar bezala eta modu eraginkorrean erabiltzeko.	

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Tresna egokia erabiltzen du, kasuan kasuko komunikazio-asmoaren arabera. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Komunikabide elektronikoak erabiltzen ditu mezuak jasotzeko eta bidaltzeko, baita helbide-liburuxkak antolatzeko eta artxiboak eransteko ere. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Mezuen eraginkortasunaren, hizkuntzaren zuzentasunaren eta erabilitako bitartekoaren bezeritasunaren arteko harremana kontuan hartzen duenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 4. Sare bidezko komunikazioan kortesia eta zuzentasun arauak errespetatzen dituenean. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** _____ **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:** _____

MINTEGIA		IKASGAIA	
KOMUNIKAZIOA GAITASUNA			
14.- Komunikazio-bide elektronikoen bidez (posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak...) mezuak bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan, komunikazio elektronikoan erabilera kritikoa eta segurua garatzeko.			
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		**ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?**	
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Kontuan hartzen du komunikazio elektronikoaren kostuaren eta beharraren arteko lotura. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Egoera zailetan segurtasunarekin erreakzionatzen duenean: erantsitako artxibo susmagarriak, ezusteko mezuak edo mezu ezezagunak baztertzen ditu eta ezezagunei ez die informazio garrantzitsurik ematen. **BAI** ☐ **EZ** ☐		**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:** _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____ _____	

MINTEGIA		IKASGAIA	
KOMUNIKAZIOA GAITASUNA			
15.- Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea, taldean ikastearen garrantzia deskubritzeko eta baloratzeko.			

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ZER EGITEN DUGU? - ZER EGIN DEZAKEGU?
Ikasleak gaitasuna menderatuko du ondokoak egiten dituenean: 1. Hainbat tresna eraginkortasunez erabiltzen ditu: posta elektronikoa, foroak, "lankidetzarako inguruneak", bideokonferentziak. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 2. Emandako errolak onartzen eta betetzen ditu eta "lankidetzako proiektuetan" parte hartzen du. **BAI** ☐ **EZ** ☐ 3. Talde-lanerako tresnak beste ikasleekin, irakasleekin edo kulturekin harreman sendoagoak sortzeko bitarteko ezin hobetzat hartzen ditu. **BAI** ☐ **EZ** ☐	**INSTITUTU MAILAN EGIN BEHARREKOA:** **MINTEGIAN EGIN BEHARREKOA:**